



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ALKIZA Udal-Info 0.0.

2011ko ekainaren 11

KORPORAZIO BERRIAREN AGURRA

Kargu hartze egun honetan, Alkizako herritarrak agurtzen zaituztegu eta gugan jarri duzuen konfidantza eskertu nahi dizuegu.

Esanik gabe doa, kargua uzten duten taldekide eta, batez ere, alkate izandako Jon Roteta-ren lana eta dedikazioa gogoan eta eredutzat hartzen ditugula.

HAUTESKUNDEEN EMAITZAK

Hauteskundeen emaitzak, bai herrikoak eta baita orokorrak ere, pozik hartu ditugula esateak ez du inor harrituko.

Gure hautagaitzaren aldeko babesoa sendoa eta zalantzarik gabekoa izan den heinean indarberriturik sentitzen gara aurrera egiteko. Beraz, jasotako aldeko bozka guztiak (164 botu % 81.19) eta gugan jarritako konfiantza biziki eskertu nahi dugu.

Era berean, boto txuriek (38 botu, %18.81) azaleratu dezaketen aurkako mezua ere, jakina, bere neurrian kontuan hartzen dugu.

Edozein modutan, gure asmoak zabaltzerakoan (jendaurreko aurkezpenean eta banatutako diptikoan) esaten genuena berresten dugu: guztiei entzuteko prest gaude eta guztiekin elkarlanean aritzeko irrikitan.

Laburtuz:

“Alkizako herriaren alde” lanean jarduteko ilusioz ekingo diogu legealdi berriari.

Poztutzekoa iruditzen zaigu baita ere orokorrean, Euskal Herri osoan eta gure inguru hurbilean, irekitzen ari den aro politiko berri eta itxaropentsua.

Horren adierazle dira, hein batean, Alkizan bertan Batzar Nagusietarako hauteskundetan izan diren emaitzak.

Egoera eta itxaropen horren aurrean, dagokigun neurri txikian bada ere, ilusioz eta arduraz jokatzeko asmoa adierazi nahi dugu.

INFORMAZIOA ZABALTZEKO ORRI INFORMATIBO BERRIA: “ALKIZA UDAL-INFO”

Udal talde berri(tu)aren agurrarekin hasiera eman nahi diogu komunikazio tresna honi: aldiro aldiro banatuko dugun *“Alkiza Udal-Info”* buletina.

Oraindik maiztasun zehatzik gabe baina urtean hiruzpalau aldiz banatu nahiko genuen orritxoren bat izango litzateke. Udaletxearen jardunarekin zerikusia duten kontu garrantzitsuenak (berriak, ekintzak, asmoak, ...) guztiongan helarazteko modu zehatz, argi eta eroso bat lortzeko ahalegin bat izango da.